



Izena: José Manuel Berganza Granda

Helbidea: Carretera Sangroniz 6 Edificio 5 Módulo 5Q

Herria: Sondika

Telefonoa: 94 453 83 833/ 661286032

E-posta: info@by-cam.com

Web orrialdea: www.by-cam.com

Produktuaren deskripzioa. Zerbitzua.

Zerbitzu hau izan daiteke posta txartela tradizionalaren bertsio moderno bat, aurreratuagoak dauden baliabide teknologikoen erabilerarekin:

Erabiltzaileak, kioskoaren BC-3500 gunetik, zuzenean grabatuko du bera eta bere ingurua agertzen den bideo bat eta posta elektronikoko helbide batzuetara bidaliko du. Bideoa eta posta elektronikoz jasotako dagozkion jakinarazpenak bidaliko dira grabatu eta konpilatu ondoren. Bidalitako posta elektronikoa web orri batera zuzenean daraman lotura bat izango du, eta bertan, bideoa ikusi ahal izango da. Bideoak ikusteko aipatutako web orri hori pertsonalizatu daiteke eta nabarmenagoa den komunikazio bide berria eta originala da. Bertan, sartu daitezke bidaltze lekua identifikatzen duten irudiak, horren web orrira daramaten loturak, eta garrantzitsua den bestelako informazioa. Mezua jasoko duten hurrengo hartzaileek eta lehenengo igorleak bideoa ikusi ahal izango dute eta nahi duten guztietan berriro bidali. Hartara, erabiltzaile-bisitariek bidalitako bideo eta posta elektronikoa bakoitza kioskoaren kokapena sustatzeko eta hedatzeko tresna izango da, etorkizunean egon daitezkeen bisitariarentzat.

Merkatuaren deskripzioa.

Bycam zerbitzuak zerbitzuaren kokapenari berritze teknologikoaren irudi bat emango dio. Irudi horrek, hein berean, kalitate gehiagoko bisita ugariagoak ekarriko ditu, etorkizunean izan daitezkeen bisitariei egindako sustapenari esker.

Horretaz gain, tokiko eskaintza turistikoa eta kulturalari buruzko informazioa emango du, argazkien eta testuen bidez, bere egonaldia hobetzeko asmoz.

Oharrak.

Diseinuko joera berrienak barneratzeari eta bere lerdentasuna eta sendotasunari esker, BC-3500 kioskoa erreminta multimedia egokia da hormetan ipintzeko, integrazio handiena lortuz eta oso leku gutxi okupatuz. Bere aldakortasunean nabarmendu beharreko beste alderdi bat da, izan ere lurrian ainguratu daiteke oin bakar baten bidez.

2 mm-ko AISI-316 altzairu herdoilgaitzez eta 1,5 mm-ko beroan galvanizatutako altzairu xaflaz egina dago, goi erresistentziako labeko epoxi pinturarekin: Oxidom grisez margotua, binilo pertsonalizatzeko aukerarekin; bestalde, RAL kartaren beste koloreak aplikatu daitezke, eskaeraren kopuruaren arabera. Neurriak honakoak dira: 107 cm altuera x 55 cm zabalera x 16 cm sakonera eta 45 kilo inguruko pisua. Honako segurtasun elementuekin fabrikatu da: zulatu aurkako goi segurtasuneko ABLOY itxiera, altzairu herdoilgaitzez egindako IP65 bandaloen aurkako teklatura, trackball-ekin Interneten nabigatzeko, pin aurkako sistema diru-zorroan, kanpoko elementuak sartu ez daitezzen, bandaloen aurkako 6 mm-ko kristala, aireztapen indartua partikulen aurkako iragazkiarekin eta juntura estankoekin hautsa eta likidoak sar ez daitezzen. Bateratasun elektromagnetikoari (EMC) buruzko zuzendaritza komunitarioaren eta behe tentsioko aparatuen segurtasunari buruzko araudiaren arabera da.

Sortzeko urtea.

2002ko uztailean.

Oraingo langileria.

3 pertsona.

Fakturazioa.

136.000 €.